



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 2a

13. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Zizur Nagusiko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
  - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (6. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (6. or.).
  - IV.3. Udalaren 2013ko egoeraekonomiko-finantzarioa (6. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (9. or.).

V. Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

V.1. 2013ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (9. or.).

V.2. 2013ko aurrekontu-emaitza bateratua (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2013ko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (11. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2013an (12. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (15. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (15. or.).

VI.5. Inbertsioak (16. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (18. or.).

VI.8. Erakunde autonomoak (19. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren eta haren menpeko enteen 2013ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Zizur Nagusiko udalerrak 5,5 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 14.120 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundearen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	10.504.581	10.271.827	99
Ardoi Kirol Patronatua	516.292	518.500	-
Kultura Patronatua	402.110	370.041	-
Musika Eskolaren Patronatua	474.498	454.949	15
Bateratzearen doitzeak	-542.171	-542.171	-
Bateratua, guztira	11.355.310	11.073.146	114

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2013an egin dituen ekarpenak hauek izan dira: Ardoi Kirol Patronatuari, 166.000 euro; Kultura Patronatuari, 197.724 euro; eta Musika Eskolaren Patronatuari, 178.446 euro. Ekarpene hauek, orokorrean, ehuneko 22 egin dute behera 2012an jasotakoekin alderatuta.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta horrek ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri garraiokoa nahiz taxikoa eta ibai parkearen kudeaketakoak. Eskualdeko garraioaren zerbitzuak 236.363 euroko kostua ekarri dio Udalari.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea, Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errenta-menduak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkidetzak programak				X	
Berdintasun-zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu- eta garapen-zerbitzuak	X				
Kirolak	X	X			
Kultura	X	X			
Musika eskola		X			
Hirigintza	X			X	
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri hondakinak			X		
Garraio publikoa			X		
Haur hezkuntzako zentroaren Zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X	
Kultur Etxearen kudeaketa	X			X	
Udal eraikinaren garbiketa eta mantentzea				X	
Kale garbiketa				X	
Kirol-instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Udal ludoteka	X			X	
Kultur Etxeko taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Gaztetxearen kudeaketa	X			X	
Udako hiri-kanpalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2013ko urtarrilaren 31n onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2014ko apirilaren 24an, Osoko Bilkurak 2013ko ekitaldiko kontu orokorra onetsi zuen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2013ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Nagusiko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei lan honetan emandako laguntzagatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Zizur Nagusiko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak eta bere erakunde autonomoek 2013an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA

Zizur Nagusiko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitzakia eta zorraren egoera-orria.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

#### IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

##### IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2013ko abenduaren 31n, 28,4 milioi eurokoa zen.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

##### IV.3. UDALAREN 2013ko EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 10,9 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko berrogeita hiru handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 15,6 milioikoak dira.

Aldaketak kreditu-gerakinen gehikuntzei, kreditu bereziei eta kreditu-osagarriei dagozkie; hain zuzen ere, ondasun arrunten eta zerbitzuen, transferentzia arrunten eta inbertsio errealen kontusail bazuk handitzeko erabili direnei.

Aitortutako betebeharrak 11,4 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 73ko betetze-maila izan dute. Desbideratze hori zor zaio, nagusiki, betetzea aurreikusitakoa baino askoz txikiagoa izateari –ehuneko 12koa baizik ez– inbertsio errealean, zeren eta aurreikusitako inbertsio eta erreforma gehienak ez baitira gauzatu.

Aitortutako eskubideek 11,1 milioi egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 71koa izan da. Portzentaje hori azal daiteke, funtsean, diru-sarreretako kapitulu guztietan betetzea handia izan delako. Betetze handi horrek kontrastea egiten du zeharkako zergetan izandako betetze txikiarekin –ehuneko 16koa–, etxebizitzak eraikitzeo aurreikusitako obrak ez baitira egin. Diruzaintza-gerakinak sartzearen bidez egindako aldaketen kopurua hain handia izateak –4,7 milioi– eragina du diru-sarreraren betetze-gradu txikian.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta inbertsioak gastu guztien ehuneko 96 eta ehuneko lau dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 97 dira; diru-sarreraren ehuneko 41, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 38 transferentzia arruntetatik eta ehuneko hiru kapital-transferentzietatik).

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoi-tza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantza iturria	Kopurua
Langileak	41	Tributu bidezko diru-sarrerak	54
Bestelako gastu arruntak	55	Transferentziak	41
Inbertsioak	4	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	5
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona Udalaren 2013rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2012koarekiko alderaketa:

	2012	2013	Aldea (%) 2013/2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	11.617.916	11.355.310	-2
Likidatutako eskubideak, guztira	11.796.079	11.073.146	-6
Gastuen betetzea (%)	87	73	-16
Diru-sarreraren betetzea (%)	86	71	-17
Ordainketak (%)	93	93	0
Kobratutakoa, %	93	94	1
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	11.067.065	10.836.412	-2
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	11.067.065	10.836.412	-2
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	519.201	500.091	-4
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	31.649	18.808	-41
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.828.509	10.766.416	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	5.687.241	6.021.695	6
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	949.947	280.245	-70
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8tik 9ra)	17.623	26.485	50
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	46	41	-11
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	51	56	10
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	192.190	-289.842	-251
Aurrekontu-emaitza doituia	-96.149	486.983	606
Aurrezki gordina	-238.556	-69.996	71
Finantza-zama (3.etik 9.era)	0	0	0
Aurrezki garbia	-238.556	-69.996	71
Zorpetze maila (%)	0	0	0
Zorpetze muga (%)	-2,20	-0,65	70
Zorpetze-ahalmena (%)	-2,20	-0,65	70
Diruzaintza-gerakina, guztira	28.042.299	27.516.878	-2
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.563.668	2.368.321	-8
Zor bizia	0	0	0

2013an, Udalak ehuneko bi gutxiago gastatu du 2012an baino; hau da, 263.000 euro gutxiago. Jaitsiera horren arrazoi nagusia ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuen eta transferentzia arruntan jaitsiera da, hurrenez hurren ehuneko sei eta ehuneko zortzi egin baitute behera.

Agertzera eman behar dugu ezen, 2013ko ekitaldian, Udalak aurreko ekitaldietan kobratu eta igorritako zenbait EIOZ itzuli dituela -377.000 euro egiten du itzulketak-; horietatik, 290.000 euro transferentzia arruntan bidezko gastuen kapituluan erregistratu dira; 87.000 euroko gainerako kopurua zeharkako zergetan izandako diru-sarrera txikiago baten moduan erregistratu dira. Itzulketa horiek kontuan hartu beharrekoak dira Udalaren egoera-orriak aztertzeke garaian (aurrekontu-emaitza, zorpetze-maila eta zorpetze-muga eta abar).

Diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoan aldean ehuneko sei murriztu dira. Jaitsiera handiena izan duen kapitulua transferentzia arruntena izan da, zeren eta 2012an 950.000 eurokoa izatetik 2013an 280.000 eurokoa izatera iragan baita; jaitsiera hori zor zaio 2012an Nafarroako Gobernuaren 750.000 euroko diru-laguntza bat jaso izateari, tokiko azpiegituren planerako. Halaber, jaitsiera handia izan da ondare bidezko diru-sarreraren kapituluan, zeren eta 2012an 706.000 eurokoa izatetik 2013an 473.000 eurokoa izatera iragan baita, banku-entitateek epe finkoko ezarpenetarako eskaintzen dituzten interes-tasek behera egitearen ondorioz. Beherakada horiek kontrastea egiten dute zuzeneko zer-

gen kapituluan izandako igoerarekin; zian ere, 2012an 3,1 milioi eurokoa izatetik 2013an 3,6 milioi eurokoa izatera iragan baita, batez ere zergen diru-bilketan izandako igoeraren ondorioz, plusbalioak eta hiri-kontribuzioa direla eta.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko biko beherapena izan da; diru-sarrerara arruntek, aldiz, ehuneko bat egin dute behera.. Gastu arruntetan jaitsiera gertatu da gastuak jaitsi egin direlako ondasun arruntetan eta zerbitzuen erosketaren kapituluan eta transferentzia arruntetan kapituluan, baina jaitsiera hori neurri batean konpentsatu du langileen kapituluan izandako ehuneko lauko igoerak. Diru-sarrerei dagokienez, haien jaitsieraren justifikazioa diru-sarrerara arruntetan kapitulu guztietan izandako beherakadatik heldu da, salbu eta zuzeneko zergen kasuan, zeren eta horietan diru-bilketak ehuneko 15 egin baitu gora.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa negatiboa da, -290.000 eurokoa; aurreko urtean, aldiz, 192.000 euroko saldo positiboa izan zen. Saldo horrek erakusten digu diru-sarrerara ez-finantzarioak ez direla nahikoak izaera bereko gastuak finantzatzeko; aurreko urtearen aldean, okertze bat gertatu da, zeren eta diru-sarreraren jaitsiera handiagoa izan baita gastuen jaitsiera baino.

Aurrekontu-emaizta doituak, ekitaldiaren amaieran, 0,5 milioi euroko superabita erakusten du, zeina heldu baita ekitaldiko gastuen finantzaketatik; finantzaketa hori milioi bat eurokoa izan da, eta diruzaintza-gerakinaren bidez gauzatu da. 2012an, emaitza 0,1 milioi euroko defizita izan zen.

2012an eta 2013an hirigintza-jarduketetatik heldutako diru-sarrerarik izan ez denez, funtzionamendu gastuak handiagoak dira diru-sarrerara arruntak baino (238.000 euro 2012an eta 70.000 euro 2013an). Hala eta guztiz ere, aurreko urteetan lortutako diru-sarrerek aukera ematen dute baliabide atxikiengatik diruzaintza gerakina 25 milioikoa izateko eta libreki erabiltzekoa den 2,4 milioi euroko gerakina edukitzeko. Udalak ez du epe luzeko zorrik.

Balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak, 2013ko abenduaren 31n, 27,8 milioikoak dira.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-289.842
Doikuntzak	-135.422
Finantzaketa-beharrak	-425.264

Ikusi da Zizur Nagusiko Udalak ez dituela betetzen finantza-egonkortasunaren baldintzak, baina bai gastuaren araua, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012an, ehuneko 1,7 egin zuen gora); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta ez baitu zorrik.

Ez-betetze hori dela eta, Udalaren Osoko Bilkurak, 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, behar diren plan ekonomiko-finantzarioak onetsi ditu, finantza-egonkortasuna betetzeko modua ematen diotenak.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.



## IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen 2012ko ekitaldiko txostenari dagokionez, aholku garrantzitsuenak oraindik gauzatzeko daude, txosten honen VI. atalean berresten den bezala, Honakoak dira, hain zuzen:

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.*
- *Patronatuak udal zerbitzu deszentralizatuak bihurtzeko aukerak aztertzea.*
- *Plantilla organikoan bete gabe dauden lanpostuak betetzeko kontratu-mota egokiak erabiltzea.*
- *Urteko gastuaren kontratuaren balioa alde aurretik zenbatets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

## V. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2013ko kontu orokorraren kontabilitateko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

## V.1. 2013ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	5.077.607	-2.930	5.074.677	4.633.902	91	4.514.649	119.253	3
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	5.221.121	553.753	5.774.874	5.602.156	97	5.177.541	424.615	8
3. Finantza-gastuak	-	-	-	-	-	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	315.857	283.583	599.440	600.354	100	483.649	116.704	19
6. Inbertsio errealak	261.626	3.870.671	4.132.297	500.091	12	374.647	125.443	25
7. Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-	-
8. Finantza-aktiboak	54.000	-	54.000	18.808	35	18.808	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>10.930.211</b>	<b>4.705.077</b>	<b>15.635.287</b>	<b>11.355.310</b>	<b>73</b>	<b>10.569.295</b>	<b>786.016</b>	<b>7</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	3.130.400	-	3.130.400	3.601.424	115	3.260.587	340.837	9
2. Zeharkako zergak	324.000	-	324.000	51.946	16	49.123	2.823	5
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.396.601	-	2.396.601	2.368.325	99	2.323.964	44.360	2
4. Transferentzia arruntak	4.340.655	-	4.340.655	4.271.858	98	3.979.094	292.764	7
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	424.555	-	424.555	472.863	111	470.560	2.303	-
6. Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	-	-	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	260.000	-	260.000	280.245	108	280.245	-	-
8. Finantza-aktiboak	54.000	4.705.077	4.759.077	26.485	1	26.485	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>10.930.211</b>	<b>4.705.077</b>	<b>15.635.287</b>	<b>11.073.146</b>	<b>71</b>	<b>10.390.058</b>	<b>683.087</b>	<b>6</b>

## V.2. 2013ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2012	2013
+ Aitortutako eskubideak	11.796.079	11.073.146
- Aitortutako betebeharrak	11.617.916	11.355.310
= Aurrekontu-emaiza	178.163	-282.164
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-665.773	-260.000
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	35.160	-
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	356.301	1.029.147
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaiza doitua	-96.149	486.983

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2013ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2012	2013
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	930.821	772.804
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	773.396	683.180
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	742.549	652.870
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	15.935	43.762
(+) Ordainketen itzulketak	0	-
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-575.839	-582.970
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-25.219	-24.038
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	950.650	1.050.592
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	760.635	786.016
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	690	520
(+) Diru-sarreraren itzulketak	76	93
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	189.248	263.963
(+) Diruzaintzako funts likidoak	28.062.128	27.794.666
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	-
= Diruzaintza-gerakina, orotara	28.042.299	27.516.878
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	44.150	44.150
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	25.434.481	25.104.407
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.563.668	2.368.321

## V.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## Aktiboa

Deskribapena	2013	2012
A Ibilgetua	28.430.058	27.951.677
1 Ibilgetu materiala	27.899.625	27.436.182
2 Ibilgetu ez-materiala	464.965	450.027
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	63.487	63.487
4 Herri-ondasunak	-	-
5 Finantza-ibilgetua	1.981	1.981
C Zirkulatzaila	29.192.542	29.959.095
8 Zordunak	1.379.813	1.531.880
9 Finantza-kontuak	27.812.729	28.091.101
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>57.622.600</b>	<b>57.574.657</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A Funts berekiak	56.547.970	56.598.787
1 Ondarea eta erreserbak	38.383.114	38.712.376
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa, mozkina (edo galera)	(309.352)	(307.553)
3 Kapitaleko diru-laguntzak	18.474.208	18.193.964
C Epe luzeko hartzekodunak	-	-
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	-	-
D Epe laburreko hartzekodunak	1.074.630	975.870
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.050.592	950.651
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	24.038	25.219
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>57.622.600</b>	<b>57.574.657</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2013an

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	1.935.155	1.938.794
61 Langile-gastuak	4.750.617	4.561.140	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	797.890	1.138.626
62 Finantza-gastuak	-	-	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.317.926	2.217.367
63 Tributuak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	671.608	659.781
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.485.441	5.850.888			
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	4.271.858	4.434.786
67 Transferentzia arruntak	600.354	655.038	77 Kapitalaren gaineko zergak	663.837	382.880
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	108.142	56.276
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	-	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	69.996	238.556
<b>Guztira</b>	<b>10.836.412</b>	<b>11.067.066</b>	<b>Guztira</b>	<b>10.836.412</b>	<b>11.067.066</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	69.996	238.556	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	-
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	79	74
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	239.435	69.071	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia guztira (saldo hartzekoduna)	-	-	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	309.352	307.553
<b>Guztira</b>	<b>309.431</b>	<b>307.627</b>	<b>Guztira</b>	<b>309.431</b>	<b>307.627</b>

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2013ko ekitaldirako aurrekontuari 2013ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2013ko martxoaren 11n sartu zen indarrean, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean.

Ekitaldian zehar egindako aurrekontu-aldaketetako bat aldaketak aurrekontu-estaldura ematen dion gastua exekutatu eta ondoren onetsi da.

Kirol eta Kultur patronatuek Udaleko langileen eta instalazioen bitartez ematen dituzte beren zerbitzuak; Musikako Patronatuak bertako langileak ditu, eta udal instalazioetan egiten ditu bere jarduerak.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Ez da aurkitu 2013ko fakturarik 2014ko aurrekontuari egotzi zaionik.

Egindako azterketan ikusi denez, oro har, hornitzaileei ordaintzeko epea bete da; hala eta guztiz ere, zenbait kasutan epea gairatu egin da, baina, oro har, ez dira kontuan hartzeko epeak eta zenbaitekoak izan, eta ez da beranduntza-interesik ordaindu.

Zizur Nagusiko Udalaren aurka 2013ko ekitaldian aurkeztutako errekurtsoen azterketa eginik, ondorioztatzen da Udalak ez dituela izanen, alde zuzenetik esanda, nabarmentzeko moduko zenbaiteko enantziak ekonomikorik.

*Hona gure gomendioak:*

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legeriak agintzen duen epean egin eta onartzea.*
- *Aurrekontu-aldaketak garaiz eta legez ezarritako moduan onestea.*
- *Kultura eta kirol patronatuak, zeinek langilerik ez baitute, Udalaren zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea.*
- *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea.*

### VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,6 milioi euro egiten du; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 41 eta gastu arrunten ehuneko 43.

2012ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko lau handitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		% Aldea
	2012	2013	
Goi-karguak	41.414	41.414	-
Funtzionarioak	2.401.958	2.552.570	6
Lan-kontratudun finkoak	464.947	509.046	9
Aldi baterako lan-kontratudunak	337.447	330.820	-2
Gizarte-zamak	1.195.324	1.200.052	-
<b>1. kapituluak, guztira</b>	<b>4.441.090</b>	<b>4.633.902</b>	<b>4</b>

Langileen ataleko gastuak handitu dira, funtsean, Udalak ez dielako langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko paga, 20/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin bat; hori dela eta, alderaketa eginez, 2012ko ekitaldian langileek 2013ko ekitaldian baino aparteko soldata bat gutxiago ko-bratu zuten.

Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko plantilla organikoa 2013ko martxoaren 7an onetsi zuen behin betiko. Guztira 95 lanpostu dauzka eta horietatik 15 lanpostu daude hutsik 2013ko abenduaren 31n. Bestalde, Musika Eskolako Patronatuaren Batzordeak 2013ko plantilla organikoa 2013ko urtarrilaren 23an onetsi zuen behin betiko. Plantilla horrek 14 lanpostu dauzka, eta 2013ko abenduaren 31n horietatik bakarra dago hutsik.

Bi plantilla horiek lanpostuen arabera banatzen dira, honako taulei jarraituz:

Langileak	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	95	80	15	14
Funtzionarioak	84	73	11	11
Lan-kontratadun finkoak	10	6	4	3
Izendapen askea	1	1	-	-
B. Musika Eskolaren Patronatua	14	13	1	1
Funtzionarioak	0	0	0	0
Lan-kontratuko finkoak	14	13	1	0
<b>Guztira</b>	<b>109</b>	<b>93</b>	<b>16</b>	<b>15</b>

2013ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 114 pertsonak egiten zuten lan. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala	Musika eskolaren patronatua	Guztira
Udaleko batzarkideak	1	0	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1	0	1
Funtzionarioak	71	0	71
Lan-kontratadun finkoak	6	13	19
Administrazio-araubidean kontratatuak	1	0	1
Behin-behineko lan-kontratadunak	19	1	20
Aldi baterako lan-kontratadunak	-	1	1
<b>Guztira</b>	<b>99</b>	<b>15</b>	<b>114</b>

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, 4 langile gutxiago ditu Udalak.

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Alkatea	1
Idazkaritza	6
Zerbitzu ekonomikoak	6
Kultura	6
Kirola	4
Gizarte zerbitzuak	18
Hirigintza zerbitzuak	10
Lorezaintza zerbitzua	11
Segurtasuna eta babesa	25
Ikastetxea	6
Berdintasuna	2
Giza baliabideak	4
<b>Udala, guztira</b>	<b>99</b>

Bai 2012an bai 2013an langileen ehuneko 40 inguru segurtasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetan ari dira.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har.

Udalak egindako kontratazioak aztertuta, ikusi da beti ez dela kontratu-modalitate egokia hautatu plantillan bete gabeko lanpostuak aldi baterako betetzeko.

Azkenik, nabarmendu beharra dago txosten hau idazteko egunean ebazteko dagoela Udalak Administrazioarekiko Auzien Auzitegian aurkeztutako errekurtsioa, zeren eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak balio gabetzat jo baitzituen deialdi batzuk, polizia-funtzionarioen bost lanposturi eta lorategietako langileren 4 lanposturi dagozkionak, hain zuzen ere Udalak ez zuelako ordezkari sindikalekin kontsultatu 2012rako lan eskaintza publikoa (tartean bi deialdi horiek zeuden), hura osoko bilkuran onetsi eta NAOan argitaratu aurretik. Lanpostua lortu zuten izangaiek haien jabetza hartu zuten 2013an zehar.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan bete gabe dauden lanpostuak betetzeko kontratu-mota egokiak erabiltzea.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 5,6 milioi euro egin dute; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 49,3 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 51,7 egiten dute. 2012. urtearen aldean, ehuneko 6,1 murriztu dira.

2012arekin alderatuta izan den jaitsiera hori funtsean justifikatzen da konponketa-, mantentze- eta kontserbazio-lanen gastuak behera egin duelako, eta Kirol Patronatuak egindako jarduerak gutxiago izan direlako.

Kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Catalina de Foix eta Camino De Santiago ikastetxe publikoen garbiketa (2013-2016)	Laguntza	Irekia, European publikizitatea eginda	168.000	4	161.093
Kultur-etxearen kudeaketa (2014-2017)	Laguntza	Irekia, European publikizitatea eginda	147.107	3	142.590

Aurreko azterketatik, aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuen azterketatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia, kasu batzuetan izan ezik, haietan gastu errepikariak, urtearen amaierarako zenbatekoei erreparatuta, kontratazio-espeditentea izapidetu behar izateko adinakoak baitira. Dena den, ezin da beti ongi aurreikusi inguruabar hori.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratuaren balioa alde aurretik zenbatets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

### VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 600.000 euro egin dute, eta 2013an sortutako gastu guztien ehuneko bost dira. Ez dago kapital-transferentziengatiko gasturik, ez ekitaldi honetan, ez 2012koan.

Honako hau da gastu horiek 2012ko ekitaldian eta 2013ko ekitaldian alderatzeko taula, artikuluz artikuluko:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehuneko 2013/2012
	2012	2013	
Toki entitateei	8.534	8.085	-5
Familiei	342.317	77.176	-77
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	304.187	225.171	-26
Enpresa pribatuei	-	289.922	100
<b>4. Transferentzia arruntak</b>	<b>655.038</b>	<b>600.354</b>	<b>-8</b>

2012arekin alderatuta, gastu horiek ehuneko zortzi egin dute behera, funtsean emandako diru-laguntzek orokorrean behera egin dutelako; jaitsieretan, nabarmentzekoak dira familientzako transferentziak, eraikinak zaharberitzeko emandako laguntzak –253.000 euro–, eta irabazi asmorik gabeko erakundeenak, bai eta garapenerako laguntzetan emandako 99.000 euroko kopurua ere. Jaitsiera horiek 2013ko ekitaldi honetan konpentsatu dira azkenean exekutatu ez zen obra batengatik 2011ko ekitaldian kobratutako EIOZ baten itzulketarekin –289.922 euro izan dira–.

Honako hauek dira 2013an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Kopurua
Futbol klubarentzako diru-laguntza	79.760
Familietan esku hartzeko programa	68.707
Saskibaloia fundazioarentzako diru-laguntza	44.125
Zizur Nagusiko banda	18.000
Garapenerako laguntza ekonomikoa	10.550
<b>Guztira</b>	<b>221.142</b>

Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak egoki betetzen duela indarra duen araudia, diru-laguntzak emateari dagokionez.

Udalak ez du ez ordenantza orokorrik, ez diru-laguntzen plan estrategikorik, biak ere Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusita badaude ere; hala eta guztiz ere, diru-laguntzen ematea berriazko ordenantzen bidez erregulatuta dauka.

Hona gure gomendioak:

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

## VI.5. INBERTSIOAK

2013. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (4,1 milioi) ehuneko 12 baizik ez da bete, eta 0,5 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko lau.

Kapitulu honek betetze-maila apala izan du, batez ere, udal instalazioetan eta bide publikoetan aurreikusita zeuden eraikuntza, erreforma eta berroneratze obretatik gehienak azkenean edo ez direlako lizitatu fiskalizatutako ekitaldian, edo ekitaldiaren amaieran lizitatu direlako eta haien gastua 2014ko ekitaldian jasan beharko delako. Nabarmentzekoa da lizitatutakoen artean, argiteria publikoaren erreformarako obrak eta oinarritzko gizarte zerbitzuetarako lokal berrietan egindako inbertsioak; lizitatu ez direnen artean, nabarmentzekoak dira Ipar Ardoin egindako kirol instalazio berrien eraikuntza, 2013rako 1,5 milioi euroko aurrekontua zutenak –aurrekontu hori ez da bete–.

2012ko ekitaldiaren aldean, inbertsioek ehuneko lau egin dute behera.

Honakoak izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Kopurua
Kirol-instalazioen erreforma	163.424
Ikastetxeetan egindako inbertsioa	61.934
Haur eskolaren erreforma	55.746



Kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Argiteria publikoa berritzea zenbait kaletan	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	195.254	9	181.586
K-1 unitatean oinarritzko gizarte zerbitzueterako lokalak egokitzea	Obra	Irekia	626.878	15	459.923

Aurreko azterketatik eta kapitulu honetan exekutututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

#### VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 11,1 milioioak izan dira; ehuneko 97 eragiketa arruntengatiko diru-sarrereri dagozkie eta ehuneko hiru, berriz, kapital-eragiketeki.

Eragiketa arruntan artean zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerak -3,6 milioi euro- eta transferentzia arruntak -4,3 milioi euro- nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzekoak -0,3 milioi-.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 70,8koa izan da. Diru-sarreraren kapitulu guztietan, ehuneko 100aren inguruko edo hortik gorako gauzatze-mailak izan dira, salbu eta zeharkako zergen kapituluaren, non betetzea ehuneko 16koa izan baita, aurreikusita zeuden zenbait eraikuntza obra ez direlako egin. Gauzatze-maila hori gutxitu da, halaber, ekitaldian zehar aurrekontu-aldaketak onetsi direlako, diruzaintza gerakinak erabiltzen joateko; hain zuzen ere, 4,7 milioi euro egin dute aurrekontu-aldaketa horiek. Aldaketa horien zenbatekoa kontuan izan gabe, gauzatze-maila ehuneko 101,3koa izanen litzateke.

2012. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko sei murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea, portzentajea 2013/2012
	2012	2013	
1. Zuzeneko zergak	3.128.282	3.601.424	15
2. Zeharkako zergak	131.747	51.946	-61
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.427.213	2.368.325	-2
4. Transferentzia arruntak	4.434.786	4.271.858	-4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	706.481	472.863	-33
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.828.509	10.766.416	-1
6. Inbertsioen besterentzea	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	949.947	280.245	-70
8. Finantza-aktiboak	17.623	26.485	50
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	967.570	306.730	-68
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>11.796.079</b>	<b>11.073.146</b>	<b>-6</b>

2013ko ekitaldian nabarmentzekoa da kapital-transferentzien kapituluaren izandako jaitsiera, zeren eta 2012an 750.000 euroko diru-laguntza bat jaso baitzen Nafarroako Gobernutik tokiko azpiegituren plana zela eta; ondare bidezko diru-sarreraren kapituluak ere behera egin du, behera egin dutelako banku-entitateek formalizatutako gordailuetatik ematen dituzten interes-tasek. Aitzitik, nabarmentzekoa da zuzeneko zergen arloko diru-bilketa, batez ere lurren balio gehikuntzarengatiko zergei eta hiri-kontribuzioari dagokienez.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2013/2012
	2012	2013	
Lurraren kontribuzioa	1.882.246	2.013.993	7
Ibilgailuak	659.781	671.608	2
Lurren balio-gehikuntza	382.880	663.834	73
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	203.375	251.989	24
EIOZ	131.747	51.946	-61
<b>Guztira</b>	<b>3.260.029</b>	<b>3.653.370</b>	<b>12</b>

Alde nagusiak antzematen dira plusbalioengatiko diru-bilketan, zeren eta Ardoi sektorean etxebizitzak entregatu baitira eta jabeek sektore berean lursailen salerosketak egin baitituzte; halaber, aldaketak izan dira lurraren kontribuzioan, etxebizitza berriak entregatu baitira.

Gainerako udal zergek igoera txikiak izan dituzte, funtsean zerga-tasak eguneratu egin direlako, aurreko ekitaldian indarra izan zuten tasen aldean.

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2006. urtean egin zen. 2010eko ekitaldian Udalaren Osoko Bilkurak eguneratze lanei ekitea onetsi zuen, 2013ko ekitaldiaren hasieratik aurrera koefiziente berriak aplikatzeko asmotan; Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak egin behar zituen aldaketan ondorioz, ordea, balorazio-ponentzia ezin izan da 2013ko ekitaldi honetara arte onetsi osoko bilkuran. Horregatik, Udala 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi da aplikatzen onetsitako koefiziente berriak.

Udalak aplikatutako tasak, lurraren kontribuzioaren eta lursailen balioaren igoerari dagokionez, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak ezartzen duen aukeraren tarte baxuan kokatzen dira; eta JEZari eta EIOZari dagokionez tarte altuan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,175	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,86tik 3,16ra	2,1 - 3,6 bitartean
Zerga-tasa	10,21	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek ehuneko 2,8 igo dira, batez beste, 2012koekin alderatuta.

## VI.7. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: hiru ofizial eta aparejadore bat.

Horrez gainera Udalak kanpoko hirigintza-aholkularitza bat badauka, arkitekto talde batek egiten duena. 2013an, 19.023 euroko gastua ekarri du aholkularitza horrek.

Zizur Nagusiko Udalaren plana 2004an onetsi zen, eta alderdi garrantzitsuenetan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari egokitzen zaio.

2013an, Udalak ez du obra lizentziarik eman etxebizitzak eraikitzeko.

Udalaren lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen eta erregistratzen da. Honako hau da haren osaera 2013ko abenduaren 31n:

Kontzeptua	Kopurua
Ondasunak	4.687.604
Diru-sarrerak	24.668.073
<b>Guztira</b>	<b>29.355.677</b>

Udalak badauka hirigintza-hitzarmenen erregistro gaurkotua. Haren irakurketatik ondorioztatzen da 2013ko ekitaldian ez dela hirigintza-hitzarmen berririk egin, eta ez dela, ezta ere, hirigintza-jarduketa garrantzitsurik egin.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintzako laguntza teknikoko lanetarako behar den hautapen-prozedura egitea.*

## VI.8. ERAKUNDE AUTONOMOAK

### VI.8.1. Kultura Patronatua

Kultura Patronatua sortu zen Zizur Nagusiko biztanleen partaidetzarako ildo eta gizarte- eta kultura-erreferentziarako gune gisa, eta gisa honetako jarduerak garatu izan ditu: ikastaroak, gizarte- eta hezkuntza-izaerako hitzaldiak, antzerki- eta dantza-ekitaldiak, entzunaldi eta kontzertuak, proiektzioak, erakusketak, liburutegia.

Kultur Patronatuak ez du langile berekirik, haren langileak Udaleko langileen multzoan sartuta baitaude. 2013ko abenduaren 31n, Udaleko 5 funtzionariok eta bitarteko lan-kontratudun pertsona batek egiten zuten lan Patronatuan.

2012an, 0,4 milioiko gastuak –funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak– eta 0,37 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona haien xehakapena:

Kontzeptua	Kopurua
Kuotak eta sarrerak	90.633
Udalaren diru-laguntza	197.724
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	44.795
Enpresa pribatuen diru-laguntza	36.540

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 23 ordaindu ditu; 2012an, berriz, ehuneko 22 ordaindu zituen.

Haren jarduera nagusiak hirugarrenei esleitzen zaizkie kasuko kontratuaren bitartez. Kontratu horiek prozedura negoziatuaren bidez izapidetzen dira.

### VI.8.2. Kirol Patronatua

Kirol Patronatua zenbait ataletan dago banaturik. Atal horiek kudeatzen eta garatzen dituzte Zizur Nagusiko biztanleei eskaintzen zaizkien kirol jarduerak. Ez du langile berekirik, langileak Udaleko langileen multzoan sartzen baitira. 2013ko abenduaren 31n 4 funtzionariok egiten zuten lan Patronatuan.

2012an, 0,52 milioiko gastuak –funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak– eta, halaber, 0,52 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona diru-sarreren xehakapena:

Kontzeptua	Kopurua
Kuotak eta sarrerak	339.758
Udalaren diru-laguntza	166.000
Beste diru-laguntza batzuk	12.742

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 59 ordaindu ditu, eta 2012ko ekitaldian, berriz, ehuneko 53 ordaindu zituen.

Haren oinarritzko kirol jarduerak hirugarrenekin kontratatzen dira prozedura negoziatuaren bitartez. Kontratu hauek urtebetekoak izaten dira, eta gehienez ere hiru edo lau urterako luzatzeko modukoak.

2013ko ekitaldian, zenbait kontratazio-prozedura eraman dira aurrera indarrean zeuden kontratuak amaitzeko. Honakoak izan dira aztertutako espedienteak (BEZik gabeko zenbatekoak):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Muskulazio eta fitness jardueretarako laguntza (2013-2015)	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publikiziterik egin gabea	67.320	1	65.076
Igeriketaren eta ohituren heziketaren inguruko jarduerarako laguntza (2013-2016)	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publikiziterik egin gabea	38.500	2	25.704

Aurreko azterketatik, aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuen azterketatik eta kapitulu honetan exekutututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Kirol Patronatuak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

### VI.8.3. Musika Eskolaren Patronatua

Musika Eskolaren Patronatuak Musika Eskolaren kudeaketaren zerbitzua ematen du, eta honakoen gisako jarduerak garatzen ditu: instrumentazioa, entzunaldiak, kontzertuak eta abar. patronatuak bere plantilla organikoa eta bere langileak dauzka: 2013ko abenduaren 31n, 13 langile finko, lanaldi partzialeko bitarteko lan kontratua duen pertsona bat eta aldi baterako lan-kontratua duen pertsona bat dira.

0,47 milioi euroko gastuak dauzka, zeinak ia guztiz langile-gastuei baitagozkie.

Diru-sarrerei dagokienez, 0,45 milioi, funtsean, honakoetatik datoz:

Kontzeptua	Kopurua
Matrikulak eta jaso-agiriak	203.365
Udalaren diru-laguntza	178.448
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	56.758
Enpresa pribatuen diru-laguntza	16.378

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 43 ordaindu ditu, eta 2012ko ekitaldian, berriaz, ehuneko 44 ordaindu zituen.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas